



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Unibertsitate Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Universidades

EBAZPENA, 2016ko azaroaren 8koa, Unibertsitateetako zuzendariarena; honen bidez, 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beka-eskaeren ebazpen-proposamena ematen du.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, 2016ko uztailaren 8ko aginduaren bitartez (2016ko uztailaren 13ko EHAA), 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako Ikasiker lankidetza beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat.

2016ko uztailaren 8ko Aginduak 13.artikuluaren xedatutakoaren arabera eraturako hautaketa-batzordeak, aurkeztutako eskaeren ebazpen-proposamena eman du.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.- Jakinarazi 2016ko irailaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beken deialdiko eskatzaileei, beka deialdiko proposamena. I. eranskinean zerrendatzen dira esleipen-proposamena duten eskaerak; II. eranskinean ukapen-proposamena duten eskaerak; eta III. eranskinean zerrendatzen dira, lehentasun-ordenaren arabera, ordezkoen zerrenda osatzen duten eskaerak.

Bigarren artikulua.- 15 egun naturaleko epea ezartzea, eranskinetan zerrendatzen diren eskatzaileak beka ebazpen-proposamenari alegazioak aurkezteko edo prozeduran parte hartzeko atzera egiteko erabakia adierazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko azaroaren 8a.

Unibertsitate zuzendaria

FRANCISCO JAVIER ALONSO ALDAMA